

Organo erromantikoaren

██████ n a z i o a r t e k o ██████

XXII. ZIKLOa


XXII Ciclo internacional
de órgano romántico



AZKOITIA

Amabirjinaren
Jasokundearen Parrokia

urriak / octubre
2, 16, 23
[20:00]



Bergara

Santa Marina
Parrokia

urriak / octubre
2, 16, 23
[20:00]



LOIOLA AZPEITIA

Loiolako
Basilika

urriak / octubre
1, 8, 15, 22
[20:00]



azkoitia

Urriak 2 larunbata

20:00 06-07 orrialdeak

BEN VAN OOSTEN organista

Urriak 16 larunbata

20:00 08-11 orrialdeak

KURT LUEDERS organista

PASCALE KARAMPOURNIS bibolina

Urriak 23 larunbata

20:00 12-15 orrialdeak

LORETO ARAMENDI organista

SARAH PÉRARNAUD organista



Bergara

Urriak **2** larunbata

20:00.....16-19 orrialdeak

AITOR OLEA organista

BERGARAKO ORFEOIA

Urriak **16** larunbata

20:00.....20-23 orrialdeak

JOXEAN PASCUAL organista

KARMELE MURO sopranoa

Urriak **23** larunbata

20:00.....24-27 orrialdeak

MYRIAM ULANGA organista

ROBERTO NUÑO biola



101012

azpeitia

Urriak 1 ostirala

20:00 28-31 orrialdeak

LORETO F. IMAZ organista

AINHOA ZUBILLAGA mezzoa

Urriak 8 ostirala

20:00 32-33 orrialdeak

AZPEITIKO eta BERGARAKO

ORGANO IKASLEEN KONTZERTUA

Urriak 15 ostirala

20:00 34-35 orrialdeak

KAROL MOSSAKOWSKI organista

Urriak 22 igandea

20:00 36-39 orrialdeak

BRICE MONTAGNOUX organista

EVA VILLEGAS klarinetea



Egitarauak

eta

kurrikulumak

KONTZERTUA:

AZKOITiko Amabirjinaren

Jasokundearen Parrokian

urriak 2, 20:00etan

EGITARAUA:

From Syphony nº6 in G minor. Op. 42/2..... *Charles Marie Widor (1844-1937)*

- Allegro

Deuxième Suite. Op 27..... *Léon Boëllmann (1862-1897)*

- Prélude pastoral

- Allegretto con moto

- Andantino

- Final-Marche

From “Le Carnaval des Animaux” *Camille Saint-Saëns (1835-1921)*

- Le Cygne

Organ transcription: Alexandre Guilmant

Symphony nº2 in E minor. Op. 20 (1902) *Louis Vierne (1870-1937)*

- Allegro

- Choral (Largo)

- Scherzo (Quasi Presto)

- Cantabile (Larghetto)

- Final

Organista: BEN VAN OOSTEN



Ben Van Oosten organista

Ben van Oosten Hagan jaio zen 1955ean. Organoa eta pianoa ikasi zituen Amsterdameko Sweelinck Kontserbatorioan eta Parisen. 1970etik, kontzertu-bira arrakastatsu ugari egin ditu, nazioarteko organo-areto nagusietan jo du. Kontzertista gisa aritzeaz gain, ikasgai magistralak ematen ditu herrialde askotan eta organo-irakaslea da Rotterdameko Kontserbatorioan.

Ben van Oosten-ek luze eta zabal landu du organorako musika sinfonikoko errepertorioa. Besteak beste, Alexandre Guilmant-ek organorako idatzitako zortzi sonatak grabatu ditu, bai eta César Franck, Camille Saint-Saëns, Louis Vierne, Charles-Marie Widor eta Marcel Dupré musikariek organorako idatzitako lan guztiak ere, eta sari ugari jaso ditu grabazio horiengatik.

Ben van Oosten, halaber, Widor-en biografia zabalaren egilea da: Charles-Marie Widor – Vater der Orgelsymphonie (Charles-Marie Widor – Organorako sinfoniaren aita).

Frantziako organoaren kulturaren alde egindako lanagatik, hiru aldiz jaso du Parisko Arteak, Zientziak eta Letrak elkarte akademikoaren aitortza. Frantziako Gobernuak Arteen eta Letren Ordenako Zaldun (1988) eta Ofizial (2011) izendatu zuen.

Ben van Oosten Hagako Grote Kerk elizako organista titularra da.

Nació en La Haya en 1955. Estudió órgano y piano en el Conservatorio Sweelinck de Ámsterdam y en París.

Desde 1970, sus numerosas y exitosas giras de conciertos le han llevado a los principales recintos organísticos internacionales. Además de su carrera como concertista, da clases magistrales en muchos países y es profesor de órgano en el Conservatorio de Rotterdam.

Sus grabaciones de las sonatas de Alexandre Guilmant y de las obras completas para órgano de César Franck, Camille Saint-Saëns, Louis Vierne, Charles-Marie Widor y Marcel Dupré han recibido numerosos premios internacionales.

Ben van Oosten es también el autor de la exhaustiva biografía de Widor titulada Charles-Marie Widor – Vater der Orgelsymphonie.

Por sus servicios a la cultura francesa del órgano, Ben van Oosten recibió en tres ocasiones el reconocimiento de la Sociedad Académica Arts, Sciences, Lettres de París. El gobierno francés le nombró Caballero (1998) y Oficial (2011) de la Ordre des Arts et des Lettres.

Es organista titular de la Grote Kerk en la Haya.

KONTZERTUA:

AZKOITiko Amabirjinaren

Jasokundearen Parrokian

urriak 16, 20:00etan

EGITARAUA:

Introduction et allegro dans le style de Pugnani*Fritz Kreisler (1874-1934)*

Sonate en fa mineur BWV 1018*Johann Sebastian Bach (1685-1750)*

- Largo

- Allegro

- Adagio

- Vivace

Hosannah! (*organoa*).....*Jacques-Nicolas Lemmens (1823-1881)*

Thème et variations, op. 150 n° 1*Josef Rheinberger (1839-1901)*

Notturmo, op. 4.....*Jean-Dominique Pasquet (1951)*

Variations*Jean-Charles Gandrille (1982)*

DUO DULCIÂME

Organista: KURT LUEDERS

Bibolina: PASCALE KARAMPOURNIS



Duo Dulciâme

Duo Dulciâme bikotea 1990eko hamarkadaren erdialdean osatu zen, topaketa profesional baten ostean. Bikoteko kideek elkarrekiko kidetasun sakona hauteman zuten, eta gerora, Duo Dulciâmek Frantzia osoan barrena ibili da, eta atzerrira ere aterata, biolin eta organorako edo kontzertuko harmoniumerako erreperitorio zabalaren pieza gorenak ezagutarazteko. 2002az geroztik, taldeak Alfred Lefébure-Wely-ren Sonata dramatikoa op. 157 lan itzelaren grabazio bat egin du (pianoarekin), eta organo askoren inaugurazioan hartu du parte. Geroago, 2017an, Alsazian, beren lehen CDa grabatu zuten, L'Alliance des Contraires (Éditions Hortus). Lan horretan, ezagutarazi nahi duten erreperitorio anitz horretako zenbait maisu-lan sartu zituzten.

Formado a mediados de los años 90 con ocasión de un encuentro profesional en el que mostraron fuertes afinidades recíprocas, el DUO DULCIÂME ha recorrido toda Francia y se abre al extranjero para dar a conocer las cimas del vasto repertorio para violín y órgano o harmonium de concierto. El dúo ha llevado a cabo desde el año 2002, con piano, una grabación de la asombrosa Sonata Dramática op. 157 de Alfred Lefébure-Wely y ha participado en la inauguración de numerosos órganos. Posteriormente, en 2017, grabaron en Alsacia su primer CD, L'Alliance des Contraires (Éditions Hortus), dedicado a varias obras maestras de ese repertorio diversificado y por descubrir.

Kurt Lueders organista



Kurt Lueders Yaleko Unibertsitateko lizentziaduna da eta bere organo-egazutzak Parisen hobetu zituen, Maurice Duruflé, Edouard Souberbielle eta André Fleury irakasleekin. Organo Ekoizleen Nazioarteko Sozietateko (ISO) idazkaria izan zen, Alexandre Guilmant-i buruzko doktorego-tesi bat 2002an Sorbonako Unibertsitatean defendatu baino lehenago. XIX. mendeko organoaz eta hari buruzko literaturaz duen jakintza-maila dela-eta, artikulu ugari argitaratu ditu, eta kontzertu eta hitzaldiak eman ditu mundu osoan, bai eta edizio-proiektu askotan parte hartu ere, hala nola harizko tresnetarako eta organorako musika erromantiko originalari buruzko bost antologia (Butz argitaletxea, Bonn). Parisko Sorbonako Unibertsitatean irakatsi du, eta organoko eta akonpainamenduko eskolak eman ditu 25 urtez Plaisir-eko Kontserbatorioan (Yvelines). Gaur egun, Kurt Lueders Espiritu Santuaren Eliza Protestante Batuaren organista da, eta horrez gain, itzulpengintza espezializatuko lanak egiten ditu.

Kurt Lueders es licenciado por la Universidad de Yale y perfeccionó sus conocimientos de órgano en París con Maurice Duruflé, Edouard Souberbielle y André Fleury. Secretario de la Sociedad Internacional de Fabricantes de Órganos (ISO) antes de defender el año 2002 en la Sorbona una tesis doctoral sobre Alexandre Guilmant, su nivel de especialización sobre el órgano del siglo XIX y su literatura le llevó a publicar artículos, dar conciertos y conferencias por todo el mundo, así como a participar en numerosos proyectos de edición, entre los que, a día de hoy, se cuentan cinco antologías de música romántica original para instrumentos de cuerda y órgano (Ediciones Butz, Bonn). Ha enseñado en la Universidad de París-Sorbona e impartido durante 25 años la clase de órgano y acompañamiento en el Conservatorio de Plaisir (Yvelines). Kurt Lueders es actualmente organista en la Iglesia Protestante Unida del Santo Espíritu, a la vez que se dedica a la traducción especializada.



Pascale Karampournis

bibolina

Pascale Karampournis Jean Lénert-en ikasle izan zen Aulnay-sous-Bois-eko kontserbatorioan, eta geroago, hiru lehen sari lortu zituen Aubervilliers-eko eskualdeko kontserbatorio nazionallean, bai eta bikaintasun-sari bat ganbera-musikan ere, Hauts-de-Seine departamentuko lehiaketan. Biolineko estatu-mailako diploma du, eta gaur egun, Fontenay-le-Fleury-ko Musika Eskolako Zuzendaria da eta biolin-eskolak ematen ditu bertan. Pasedeloup orkestrako biolin-jotzaile titularra da 1986tik, izen handiko zuzendari askorekin jardun du, eta erreperitorio aberats eta askotarikoa landu du: barroko musika, musika garaikideko hainbat estilo, komedia musikala, etab.

Alumna de Jean Lénert en el Conservatorio de Aulnay-sous-Bois, Pascale Karampournis consiguió posteriormente tres primeros premios en el Conservatorio Nacional Regional de Aubervilliers, así como un premio de excelencia en música de cámara en el concurso departamental de Hauts-de-Seine. Posee el diploma estatal de violín y es actualmente directora de la Escuela de Música de Fontenay-le-Fleury, en la que imparte clases de violín. Violinista titular de la orquesta Pasedeloup desde 1986, se beneficia del contacto con muchos directores de prestigio, y cultiva un repertorio rico y variado que va desde el barroco hasta los más diversos lenguajes contemporáneos, pasando por la comedia musical.

KONTZERTUA:

AZKOITiko Amabirjinaren

Jasokundearen Parrokian

urriak 23, 20:00etan

EGITARAUA:

Obertura de la flauta mágica..... W.A. Mozart (1756-1791) *

Funérailles Franz Liszt (1811-1886) **

(Harmonies poétiques et religieuses -1849)(transcription de Louis Robilliard)

Cabalgata de las Valkirias R.Wagner (1813-1883) *

Preludio y fuga sobre B.A.C.H..... F. Liszt (1811-1886) ***

Rédemption (Interludio Sinfónico) C. Franck (1882-1890) ***

Sonate Parisienne para órgano a cuatro manos..... Julien Bret (1974-) *

(*) ÓRGANO CUATRO MANOS

(**) Organista: SARAH PÉRARNAUD

(***) Organista: LORETO ARAMENDI



Sárah Pérarnaud organista

Sarah Donostian jaio zen 2006. urtean. Hiru urterekin hasi zen pianoa eta biolina ikasten, eta zazpi urterekin, organoa. Baionako eta Donostiako kontserbatorioetan Maruxa Llorente, Esther Mendiburu, Loreto F. Imaz eta Esteban Landart irakasleen eskoletara joan da.

Gaur egun, organo-ikasketak egiten ari da Louis Robilliard irakaslearekin, eta piano-ikasketak, Marta Zabaleta eta Maruxa Llorenterekin.

Danja Lukanek Vienan eta Labèque ahizpek eskainitako zenbait eskola magistraletan hartu du parte. Horrez gain, Donostiako Musika Hamabostaldiko organo-ikastaroetan ere hartu du parte Michel Bouvard eta Daniel Roth irakasleekin eta amaierako kontzertuan parte hartu du. MusicAlp (Frantzia) jaialdian ere izan da Laurent Cabassorekin.

Hainbat lehiaketa irabazi ditu, hala nola Donostia Hiria (1. saria), Enrique Lartundo saria, Andoaingo jaialdia (Ohorezko aipamena), Claude Debussy saria (Aipamen berezia), Robert Schumann saria (Aipamen berezia), Beethoven musikari gazteak saria (lehen saria B kategorian) eta Jugend Musiziert (lehen saria Alemaniako estatu-fasean).

Kontzertuak eskaini ditu hainbat tokitan, Musika Hamabostaldian, Lübecken, Andoainen, Donostian, Orion eta Nafarroan, adibidez. Bakarlari gisa hartu du parte Andoaingo Jaialdiaren inaugurazioan Beethovenen Rondo eta Bachen pianorako eta orkestrarako kontzertua fa m-ean interpretatuta.

Weimarreko Gymnasium Belvedere Schloss eskolan sartu berri da eta han jarraituko ditu ikasketa akademikoak zein musika-ikasketak.

Nace en San Sebastián en el año 2006. Comienza sus estudios de piano y violín a los tres años y los de órgano a los siete. Recibió clases en el conservatorio de Bayona y de San Sebastián con Maruxa Llorente, Esther Mendiburu, Loreto F. Imaz y Esteban Landart.

Actualmente estudia órgano con Louis Robilliard y piano con Marta Zabaleta y Maruxa Llorente.

Ha participado en varias master clases impartidas por Danja Lukan en Viena y las hermanas Labèque. Además participa en los cursos de órgano de Quincena Musical de San Sebastián recibiendo clases de la mano de Michel Bouvard y Daniel Roth, tomando parte ambas veces en el concierto de clausura y MusicAlp (Francia) con Laurent Cabassa.

Ha ganado diversos concursos tales como el Ciudad San Sebastián -1. Premio y premio Enrique Lartundo), Jaialdi de Andoain ,Mención de honor premio Claude Debussy,Mención especial premio Robert Schumann, Mención especial premio Beethoven, -Jóvenes músicos (primer premio en la categoría B y Jugend Musiziert-primer premio fase Estatal Alemana.

Ha ofrecido diversos conciertos tanto en Quincena Musical como en Lübeck, Andoain, San Sebastián, Orio, Navarra. Ha participado como solista interpretando el Rondo de Beethoven y el concierto en fam de Bach para piano y orquesta en la inauguración del Jaialdi de Andoain.

Acaba de ingresar en el Gymnasium Belvedere Schloss de Weimar donde continuará sus estudios tanto académicos como musicales.

Loreto Aramendi organista



Donostiako Koruko Amaren Basilikako Cavaillé-Coll organoaren (1863) organo-jotzaile titularra da eta nazioarte mailako kontzertu-emailea. Errezitaldi ugari eskaini ditu hainbat jaialditan bai AEBn, Japonian, Argentinan eta Kanadan, bai Europako herrialde gehienetan, eta honako leku hauetan eskaini ditu emanaldiak esate baterako: Tokioko Opera City Hall, Madrilo Auditorium Nazionalea (Bach-Varmut), Parisko Notre Dame katedrala eta Saint Sulpice eliza, Rykjavikeko Hallgrímskirkja, New Yorkeko Saint Patrick's Cathedral katedrala, Londresko Westminster abadia eta Norvegiako Stavanger auditoriuma.

Hiru disko bikoitz argitaratu ditu: lehen, Koruko Amaren Basilikako Cavaillé-Coll organoan grabatu zuen; bigarrena, "Transcriptions", Roueneko Saint Ouen abadiako Cavaillé-Coll organoan grabatu zuen Louis Robilliard transkripzioekin, eta hirugarrena, "Orlos, Clarines y otros Nazardos", Salamancako katedralean eta Santanyi parrokiako Jordi Bosch organoan grabatu zuen.

Lyongo Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalan (CNSMD) sartu zen. Han Jean Boyer, Louis Robilliard eta J. Von Oortmersen irakasleekin egin zuen lan. Lehen Saria eskuratu zuen "Mention très bien" aipamenarekin eta Goi Mailako Ikasketen Diploma Nazionalea ere bai organo espezialitatean.

Psikologian lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Gaur egun irakasle da Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean.

Loreto Aramendiren hurrengo konpromisoen artean daude AEB eta Japoniako birak, eta kontzertuak han eta hemen: Ingalaterra, Frantzia, Norvegia, Islandia, Eslovakia, Errusia, Alemania, Polonia, Luxenburgo, Suitza, Italia eta Espainia.

Organista titular del órgano Cavaillé Coll (1863) de la Basílica de Santa María del Coro de San Sebastián y concertista internacional. Ha ofrecido numerosos recitales en festivales internacionales tanto en EEUU, Japón, Argentina, Canadá y Rusia, así como en la mayoría de los países europeos actuando en espacios como la Ópera City Hall de Tokyo, Auditorio Nacional de Madrid (Bach-Vermut), Notre Dame de París, Catedral de Westminster, Hallgrímskirkja en Reykjavik, Saint Patricks Cathedral de Nueva York, Catedral de Moscú o el Auditorio de Stavanger (Noruega) entre otros.

Ha publicado tres doble CD grabados en el gran órgano Cavaillé-Coll de Santa María del Coro, en el gran Cavaillé-Coll de la Abadía de Saint Ouen de Rouen con transcripciones de Louis Robilliard y en la Catedral de Salamanca y en el órgano Bosch de Mallorca.

Trabaja con Jean Boyer y Louis Robilliard, obteniendo el primer premio de órgano al finalizar el ciclo superior y el Diploma Nacional de Estudios Superiores.

Interesada por el mundo de la organería se introduce en este ámbito colaborando y participando activamente en diversos proyectos de reparación y restauración.

Es licenciada en Psicología por la UPV del País Vasco y trabaja en el conservatorio Profesional Francisco Escudero de San Sebastián.

Sus próximos compromisos incluyen conciertos en EEUU, Japón, Rusia, Finlandia, Italia, Francia, Luxemburgo, Suiza, Alemania, Israel y España.



KONTZERTUA:

BERGARAKO

Santa Marina Parrokian

urriak 2, 20:00etan

EGITARAUA:

Prelude et Fugue n.º 3 Op.109 *Camille Saint-Saëns (1835-1921)* *

Finale de la Troisième Symphonie Op.78 *Camille Saint-Saëns (1835-1921)* *

“MARIAM MATREM”

Stabat mater op.138..... *Josef Gabriel Rheinberger (1839-1901)* **

Regina Coeli kv.108..... *Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)* **

Ave Maria *Camille Saint-Saëns (1835-1921)* **

Ave Verum Corpus..... *Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)* **

(*) Organoa

(**) Abesbatza + organoa

Organista: **AITOR OLEA**

BERGARAKO ORFEOIA

Zuzendaria: **AITOR BIAIN-BIDARTE**



Aitor Olea organista

Durangon jaio zen eta musika ikasketak Arrasaten eta Donostian burutu zituen.

1995ean Pianoko Goi-Mailako titulua lortu zuen Bilboko "J.C.Arriaga" Kontserbatorioan ikasle libre moduan.

1991-1997 urteen artean "ENM de Musique de Bayonne" organo ikasketak Mme. Marie Bernadette Carrau-k ematen zituen klaseetan. "Medaille d'Or" eta Sari berezia lortuz.

2001ean Organo ikasketak konbalidatu zituen Gasteizko "J.Guridi" Kontserbatorioan Jose Ignazio Sanz irakaslearen zuzendaritzapean, ohorezko aipamena eta Goi-Mailako titulua lortuz.

AUS_ART records etxearekin CD ugari argitaratu ditu: "Organos de Vasconia", "XXth Century Basque Organ Music", "De música popular vasca", "Julian Sagasta gogoan" eta "Aita Madina Eliz Kantak" bildumetan.

Besteak beste kontzertuak eman ditu: Euskal Herrian, Espainian, Frantzian, Belgikan, Alemanian, Irlandan, Italian, Ingalaterran eta Finlandian.

1988-2008urteen artean Lekeitioko Andra Mariren Zeruratzea Basilikak duen 1854.urteko Cavaillé-Coll organuaren organu-jolea izan da. Era berean, Lea-Artibaiko Nazioarteko Organu Jaialdiaren sortzailea izan da.

Gaur egun Bergarako Pedro Deunaren Elizak duen 1889. urteko Stoltz-Frères organuaren organujole titularra da eta Gasteizko "J.Guridi" Kontserbatorioan erreperitorioko pianojolea da.

Nacido en Durango realizó los estudios musicales en Arrasate y Donostia.

En 1995 obtuvo el título superior de piano en el Conservatorio J.C. Arriaga de Bilbao, como alumno libre.

Entre los años 1991-1997 realizó estudios de órgano en la Escuela Nacional de Música de Bayona, en las clases impartidas por Marie Bernadette Carrau y consiguió la medalla de oro y el premio especial.

En 2001 convalidó sus estudios de órgano en el Conservatorio J. Guridi de Gasteiz, bajo la dirección de José Ignacio Sanz, consiguiendo una mención de honor y el título superior.

Ha publicado numerosos trabajos en grabaciones del sello AUS_ART records, en las recopilaciones "Órganos de Vasconia", "XXth Century Basque Organ Music", "De música popular vasca", "Julian Sagasta gogoan" y "Aita Madina Eliz Kantak".

También, ha dado conciertos en el País Vasco, España, Francia, Bélgica, Alemania, Irlanda, Italia, Inglaterra y Finlandia.

Entre los años 1988-2008 fué organista de la Basilica de la Asunción de Nuestra Señora de Lekeitio (órgano Cavaillé-Coll de 1854). Asimismo, fundó el Festival Internacional de Órgano de Lea-Artibai.

En la actualidad es el organista titular de la Iglesia de San Pedro de Bergara (órgano de Stoltz-Frères de 1889), y pianista repertorista en el Conservatorio J. Guridi de Gasteiz.



Bergarako Orfeoia

Bergarako Orfeoia 1923an sortu zen Bergarako abesbatzen tradizioaren ondorioz XIX. mendearen amaieratik. 50-70eko hamarkadetan, taldeak errepertorio sinfoniko-koralari lotuta egon zen eta garaiko orkestra eta zuzendari garrantzitsuenekin lan egin zuen, Odon Alonso eta García Asensiorekin, besteak beste.

1990etik aurrera aldaketa sakon bat izan zuen, abeslari berrien aldeko apustua eginez eta Bergarako Orfeoi Gaztea sortuz David Azurzaren zuzendaritzapean. 2000-2010 hamarkadan Lausardi Koru Sinfonikoaren parte ere izan zen, Arrasateko Goikobalu abesbatzarekin batera.

2006an, orfeoiko taldeek etapa berri bati ekin zioten, Aitor BiainBidarte zuzendaritzapean. Urte berdinean Bergarako Orfeoi Txikia sortu zen, 150 haur baino gehiagorekin.

Bere historian hainbat sari jaso ditu: Lehen saria San Vicente de la Barquerako Jaialdian, 1996. Lehen saria Noveldako Erljio Musikaren Lehiaketan (Alacant), 2001. Ikuskizun eskeniko-musikaletan ere parte hartu du: Miserableak (C. M. Schönberg), 1994; San Martinen Estanpak (Miguel González Bastida), 1997; Oliver! (Lionel bart), 1999-2002; Seussen Mundua (Stephen Flaherty), 2005-2006, guztiak Bergaran ekoiztiak.

Gainera, abesbatzak hainbat jaialditan parte hartu du eta hainbat kontzertu eman ditu, bai Euskal Herrian, bai Estatuko eta atzerriko hainbat tokitan.

Bergarako Orfeoia diskotatu bat grabatu zuen bere 75. urteurrena ospatzeko: "Bergarako Orfeoia, 75. Urteurrena" (1998). Eta gaur egun, bere mendeurrena, 2023an izango dena antolatzen ari da.

El Orfeón Bergarés surge en 1923 como fruto de la tradición coral de Bergara desde finales del XIX. En las décadas de los 50 - 70, la agrupación estuvo ligado al repertorio sinfónico-coral y trabajó con las principales orquestas y directores del momento como Odón Alonso, García Asensio entre otros.

A partir de 1990 experimenta un profundo giro, apostando por la renovación vocal y creando el Bergarako Orfeoi Gaztea bajo la dirección de David Azurza.

En la década 2000-2010 forma parte de Lausardi Koru Sinfonikoa, junto con la agrupación coral Goikobalu de Arrasate.

En 2006, las distintas agrupaciones del orfeón emprende una nueva etapa con Aitor Biain-Bidarte como director. Este mismo año se crea el Bergarako Orfeoi Txiki con más de 150 niños en sus distintas agrupaciones.

Ha sido galardonado con distintos premios en su historia: Primer premio en el Festival de San Vicente de la Barquera, 1996 y primer premio en el Certamen de Música Religiosa de Novelda (Alicante), 2001.

También ha participado en espectáculos escénico-musicales como: Miserableak (C. M. Schönberg), 1994; San Martinen Estanpak (Miguel González Bastida), 1997; Oliver! (Lionel Bart), 1999-2002; Seussen Mundua (Stephen Flaherty), 2005-2006, todos ellos producidos en Bergara.

Además el coro ha participado en varios festivales y ofrecido numerosos conciertos, tanto en el País Vasco, como en diversos lugares del Estado y extranjero.

Bergarako Orfeoia grabó un disco con motivo de su 75 aniversario titulado: "Bergarako Orfeoia, 75. Urteurrena" (1998), y actualmente, organiza con mucho esmero su centenario, que será el 2023, en donde la agrupación piensa celebrarlo por todo lo alto.



KONTZERTUA:

BERGARAKO

Santa Marina Parrokian

urriak 16, 20:00etan

EGITARAUA:

The Odoro, one step, op. 1*	<i>Pablo Sorozabal Mariezcurrena (1897-1988)*</i>
Otz eta ixiltxu	<i>Pablo Sorozabal Mariezcurrena (1897-1988)**</i>
Zure mosuan	<i>Pablo Sorozabal Mariezcurrena (1897-1988)**</i>
Lotoren lorak	<i>Pablo Sorozabal Mariezcurrena (1897-1988)**</i>
Agertu-yatan orila	<i>Pablo Sorozabal Mariezcurrena (1897-1988)**</i>
Oración de la madre del torero (Joaquín Turinaren omenez)	<i>Beltrán Pagola Goya (1878-1950)*</i>
Zortzico	<i>Beltrán Pagola Goya (1878-1950)**</i>
Charmegarria	<i>Beltrán Pagola Goya (1878-1950)**</i>
Il da txoria	<i>José Olaizola Gabarain (1883-1969)**</i>
O Yesus gurutzera	<i>José Gonzalo Zulaica (Aita Donostia) (1886-1956)*</i>
Alferretan haiz sortzen	<i>José Gonzalo Zulaica (Aita Donostia) (1886-1956)**</i>
Kantoreño hauk	<i>José Gonzalo Zulaica (Aita Donostia) (1886-1956)**</i>
Entrée	<i>José M.^a Usandizaga Soraluze (1887-1915)*</i>
Ave Maria	<i>José M.^a Usandizaga Soraluze (1887-1915)**</i>
Toccata	<i>José M.^a Usandizaga Soraluze (1887-1915)*</i>

(*) Organoa

(**) Abesbatza + sopranoa

Organista: JOXEAN PASCUAL PUY

Sopranoa: KARMELE MURO MARITXALAR



Jose Antonio Pascual organista

Jose Antonio Pascual Donostian jaio zen, eta Klabezineko ikasketak egin zituen Donostiako Goi Mailako Udal Kontserbatorioan. Aldi berean Orkestra Zuzendaritza, Organo, Harmonia, Analisi eta Orkestazio ikasketak bukatu zituen Baionako CNR-n.

1999an Jeune Orchestre Symphonique de Bayonneko zuzendari izendatu zuten, eta bi urtez aritu zen kargu horretan. 1999. urtetik 2001. urtera, Easo Abesbatzako Eskolaniako Zuzendaria ere izan zen.

2001. urtean JONDEk antolatutako Orkestrako Zuzendari Gazteen lehiaketa irabazi zuen, eta orkestra horretako zuzendari laguntzaile izendatu zuten.

JONDErekin igarotako denboran, zenbait aldiz gonbidatu zuten zuzendari titular gisa. Esate baterako, nabarmentzekoa da Alacanteko "Musika Garaikidearen XVII. Jaialdian" zuzendu zuen kontzertua.

Gainera, JONDErekin disko bat grabatu zuen SGAErentzat Rafael Rodríguez Albert konpositorearen musikarekin. Organo-jotzaile moduan emanaldiak eskaini ditu Bach Jaialdian, Barroko Aire musikaldian, Luis Urteagaren Oroimenezko Ekitaldian eta Donostiako Santa Maria Elizan Musika Lagun Artean zikloan. Zenbait orkestrarekin kolaboratzaile ere aritu da, hala nola, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Asturiasko Printzerriko Orkestra Sinfonikoarekin.

Besteak beste, talde hauen zuzendaria izan da: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, JONDE, Zumaiaiko Banda, Easo XXI Banda, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Valléseko Orkestra Sinfonikoa, Galiziako Orkestra Sinfonikoa, Bayonne-Côte Basque Orkestra sinfonikoa, Asturiasko Printzerriko Orkestra Sinfonikoa, Musikeneko Haize Ensemblea, Estokolmoko Royal College of Music-eko Orkestra, eta abar.

Gaur egun, kontzertuak ematen jarraitzeaz gain, organo irakaslea da Bergarako Musika Eskolan eta Bayonne-Côte Basqueko CNRn.

Nacido en San Sebastián, realiza los estudios de Clavecín en el Conservatorio Municipal Superior de San Sebastián. Paralelamente finaliza los estudios de Dirección de Orquesta, Órgano, Armonía, Análisis y Orquestación en el CNR de Bayonna.

En 1999 es nombrado Director de la Jeune Orchestre Symphonique de Bayonne, cargo que ejerce durante 2 años. Desde el año 1999 hasta 2001 es a su vez Director de la Escolanía del Coro Easo.

En 2001 gana el Concurso para Jóvenes Directores de Orquesta que organiza la JONDE y es nombrado Director Asistente de la misma.

Durante este tiempo con la JONDE, es invitado en varias ocasiones como Director Titular. Así, cabe destacar el concierto que dirigió dentro del "XVII Festival Internacional de Música Contemporánea" de Alicante y la gira realizada por España: Madrid, Zaragoza y Salamanca.

Graba además un disco con la JONDE para la SGAE con música del compositor Rafael Rodríguez Albert.

Ha ofrecido recitales como organista en el Festival Bach, Barroco Aire, Memorial Luis Urteaga y el ciclo Música entre amigos de Santa María de Donostia. Colabora también con orquestas como Bilbo Orkestra Sinfonikoa y Orquesta Sinfónica del Principado de Asturias.

Entre otras ha dirigido las siguientes formaciones: Orquesta Sinfónica de Euskadi, JONDE, Banda de Zumaia, Banda Easo XXI, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Orquesta Sinfónica del Vallés, Orquesta Sinfónica de Galicia, Orquesta Regional Bayonne-Côte Basque, Orquesta del Principado de Asturias, Orquesta de la Royal College of Music de Estocolmo, etc.

Actualmente, combina su actividad concertística y además es profesor de órgano de la Escuela de Música de Bergara y del CNR de Bayonne-Côte Basque.

Karmele Muro sopranoa



Karmele Muro Donostian jaio zen. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egin zituen ikasketak, kantuko espezialitatean. New Yorken (AEB), Frantzia eta Italian ere jaso du prestakuntza.

Eskola magistralak jaso ditu honako maisu hauen eskutik, besteak beste: Dodi Protero, Stephen Chung Tao Cheng, Ileana Cotrubas, Maite Arruabarrena, Alejandro Zabala, Isabel Penagos, Jacques Schwarz, Pierre Clement, Sebastian Wonner, Mari Carmen Arbizu, Itziar Barredo eta abar.

Gaur egun, irakaskuntza eta kontzertu-jarduera uztartzen ditu. Izan ere, zenbait ikastetxe eta unibertsitatetan "UEUn eta Deustun kasu", dihardu irakasle, eta hauekin guztiekin egin du lan: Musikeneko Orkestra Sinfonikoa, Orchestre Régional Bayonne-Côte Basque, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Ensemble Orchestral Ermend Bonnal, Orchestre Symphonique des Jeunes du CNR Bayonne Côte Basque eta abar.

Nacida en San Sebastián, finaliza los estudios de música en la especialidad canto por el Conservatorio Superior de Navarra, se ha formado además en Nueva York (EEUU), Francia e Italia.

Ha recibido clases magistrales de los siguientes maestros entre otros: Dodi Protero, Stephen Chung Tao Cheng, Ileana Cotrubas, Maite Arruabarrena, Alejandro Zabala, Isabel Penagos, Jacques Schwarz, Pierre Clement, Sebastian Wonner, Mari Carmen Arbizu, Itziar Barredo, etc.

Actualmente compagina la docencia en diferentes centros y universidades tales como UEU, o Deusto con su actividad concertística habiendo trabajado con Musikeneko Orkestra Sinfonikoa, Orchestre Régional Bayonne-Côte Basque, Orquesta Sinfónica de Navarra, Ensemble Orchestral Ermend Bonnal, Orchestre Symphonique des Jeunes du CNR Bayonne Côte Basque, etc.



KONTZERTUA:

BERGARAKO

Santa Marina Parrokian

urriak 23, 20:00etan

EGITARAUA:

- Agur Jaunak *Tomás Garbizu (1901 -1989)* **
- Concierto en el Palacio de Bendaña *Tomás Garbizu (1901 -1989)* **
- I-Allegro
- II- Andante Tranquilo
- III- Allegretto
- Entrée Pontificale op 149 *Jean Marie Plum (1899 -1944)* *
- Big-Ben (Toccata N.º 3) op 154 *Jean Marie Plum (1899 -1944)* *
- Les Pecheurs des Perles..... *George Bizet (1838 – 1875)* **
- Deux Pièces *Louis Vierne (1870 – 1937)* **
- I -Le Soir
- II - Legende
- Deux Pièces *Theodore Dubois (1937 -?)* *
- I- Offertoire
- II- Toccata
- Three Pièces *Alec Rowley (1892 -1958)* **
- I- Aubade
- II- Reverie
- III- Farandole
- Ofertorio en La mayor *Eduardo Moco-roa (1867 – 1959)* *
- Final *Jesús Guridi (1886 -1961)* *

(*) Organoa

(**) Biola + organoa

Organista: **MYRIAM ULANGA ELORZ**

Biola: **ROBERTO NUÑO MILLAN**



Myriam Ulanga organista

Andoainen jaioa, bertan hasi zituen musika ikasketak Luis Fraca irakaslearekin. Ondoren, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan jarraitu zuen piano ikasketak egiten. Jose Antonio Labradaren eta Jesús González Alonsoren katedretan. Jarraian organo ikasketak egin zituen Esteban Elizondoren katedran. Aldi berean, piano eta kamara musika hobetze ikasketak egin zituen Frantzian.

Piano, kamara musika eta organo espezializazio ikastaroak egin zituen irakasle ospetsuen zuzendaritzapean: E. Ferrer, M. Carra, Badura Skoda, D. Roth, Jean Boyer

Kontzertu asko eskeini ditu bai bakarlari bezela, bai erreperitorista bezela.

Gaur egun Andoaingo Udal Musika Eskolako piano, erreperitorioa pianista edo organista laguntzaile eta organo irakaslea da, baita Tolosako Musika Kaperako organista ere.

Nacida en Andoain, comenzó sus estudios musicales en dicha localidad, con el profesor Luis Fraca. Posteriormente, continuó sus estudios de piano en el Conservatorio Superior de San Sebastián, en las cátedras de José Antonio Labrada y Jesús González Alonso. A continuación, cursó estudios de órgano en la cátedra de Esteban Elizondo. Al mismo tiempo, llevó a cabo estudios de perfeccionamiento en piano y música de cámara en Francia.

Cursó estudios de piano, música de cámara y especialización de órgano bajo la dirección de prestigiosos profesores: E. Ferrer, M. Carra, Badura Skoda, D. Roth, Jean Boyer. . .

Ha ofrecido numerosos conciertos como solista y repertorista.

En la actualidad es profesora de piano y órgano, pianista repertorista y organista ayudante en la Escuela de Música Municipal de Andoain, así como organista de la Capilla de Música Santa María de Tolosa.

Roberto Nuño biola



Donostiako eta Madrilgo Goi Mailako kontserbatorioetan biolan Goi Mailako tituladuna.

Biola eta orkestra zuzendaritza ikasketak Espainia, Frantzia eta Alemanian sakondu zituen, besteak beste A. Arias, J Ph. B. Vaseur eta E. Santiagorekin. Gainera Zaragozako Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatura da eta Euskal Herriko Unibertsitatean graduondoko tituladuna Psikodidaktika ikasketak.

Hainbat ganbara eta orkestra sinfoniko ezberdinetan jotzaile bezala parte hartu du eta Euskal Autonomi Erkidegoko ikasleez osaturiko talde askotako zuzendari izan da.

Gaur egun Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioan biola irakaslea da.

Titulado superior en viola por los conservatorios de San Sebastián y Madrid.

Profundizó sus estudios en viola y dirección de orquesta en España, Francia y Alemania con profesores como A. Arias, J Ph. B. Vaseur y E. Santiago. Además, es licenciado en derecho por la Universidad de Zaragoza, y consiguió el título de posgrado en Psicodidáctica por la Universidad del País Vasco.

Ha participado en numerosas formaciones de música de cámara y orquestas sinfónicas, y ha dirigido numerosos grupos formados por alumnos de la Comunidad Autónoma Vasca.

En la actualidad es profesor de viola en el Conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián.



KONTZERTUA:

AZPEITiko

Loiolako Basilikan

urriak 1, 20:00etan

EGITARAUA:

Prelude * *Camile Saint-Saëns (1835-1921)*
Tristesse (Ferdinand Lemaire)

Les berceaux (Sully Prudhomme) *Gabriel Fauré (1845-1924)*
Après un rêve (Romain Bussine)

Improvisation * *Nadia Boulanger (1887-1979)*

L'invitation au voyage (Charles Baudelaire) *Henri Duparc (1848-1933)*
Chanson triste (Jean Lahor)

L'ange a la trompette * *Jaques Charpentier (1933-2017)*

Les heures (Camille Mauchoir) *Ernest Chausson (1855-1899)*
Le temps des Lilas (Maurice Bouchor)

Chant héroïque * *Jean Langlais (1907-1991)*

A Chloris (Théophile De Viau) *Reynaldo Hahn (1875-1947)*
L'heure exquise (Paul Verlaine)

La cloche fêlée (Charles Baudelaire) *Philippe Gaubert (1879-1941)*

Postlude Amen * *Charles Tournemire (1870-1939)*

(*) Organo bakarrik

Organista: **LORETO F. IMAZ**

Mezsoa: **AINHOA ZUBILLAGA**



Loreto Fdez. Imaz organista

Loreto F. Imaz, Donostian 1956an jaiotako organo-jotzailea, 7 urterekin hasi zen musika ikasten, eta, gaur egun, bere interpretazioak lantzen, zabaltzen eta hobetzen jarraitzen du, baina sekula ez du masterrik edo doktoregorik egingo.

Bernadette Carrau, Xavier Darasse, Montserrat Torrent eta Michael Radulescuren ikaslea izan da.

40 urte baino gehiago daramatza ikasten, grabatzen eta kontzertuak ematen.

Eskerrak eman nahi dizkie izan dituen irakasleei, ikasleei eta publiko guztiari.

Bere ahalegin nagusia "emozio musikala" bilatzea da.

Loreto F. Imaz, organista nacida en Donostia-San Sebastián en 1956, comenzó a estudiar música a la temprana edad de 7 años y a día de hoy continúa estudiando, ampliando y mejorando sus interpretaciones, aunque nunca cursara master ni doctorado alguno.

Discípula de Bernadette Carrau, Xavier Darasse, Montserrat Torrent y Michael Radulescu.

Son más de 40 años enseñando, grabando y haciendo conciertos.

Está muy agradecida a tod@s sus maestr@s, discípul@s y al público en general.

Su gran empeño se centra en buscar la "emoción musical".

Ainhoa Zubillaga mezzoa



"Ainhoa Zubillagak konkistatu egin zuen bere sentsibilitatearekin... isiltasunik erabatekoena konplize egin zuen musika puruak Musikverein inbadi zezan".

Hainbat herrialdetako jaialdi, ziklo, areto eta auditoriumetan aurkeztu da, hala nola Austrian, Brasilen, Kuban, Espainian, Frantzia, Britainia Handian, Holandan, Mexikon, Polonian, Txekiar Errepublikan... Batzuk aipatzearen, honako antzoki eta jaialdietara aurkeztu da: Musikverein, Halle aux Grains, Errege Antzokia, Auditorium Nazionale, Teatro Monumental antzokia, Musika Hamabostaldia, A Coruña Mozart Jaialdia, Nanteseko Jaialdia, Cuencako Erljio Musikaren Astea... Orkestra entzutetsuen aurrean ere aritu da: Errusiako Orkestra Nazionalea, Letoniako Orkestra Nazionalea, Lyongo Orkestra Nazionalea, Tolosako kapitolioa, Vienako Orkestra Sinfonikoa, Galiziako Orkestra Sinfonikoa, Balearretako Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Asturiasko Printzerriko Orkestra Sinfonikoa, Real Filharmonía de Galicia, RTVE... Artista handiekin partekatu du eszenatokia, hots, Alvarez, Arteta, Bros, Burchuladze, Gavanelli, Gustafson, Hendrick, Jaho, Kunde, Machado, Millgramm, Montagüe, Moreno, Mosuc, Neves, Nuci, O'Neill, Pieczonka, Prokina, Rucinski, Rydl, Streit, Zajick... Honako maisu hauek izan ditu zuzendari: Ceccato, Gomez Martinez, Griffiths, Kout, López Cobos, Mena, Victor Pablo Pérez, Pletnev, Pons, Ros Marbá, So, Traub, Wilson...

Operaren esparruan, hainbat erakunderen produkzioetan esku hartu du; esaterako: ABAO, Musika Hamabostaldia, Las Palmaseko eta Malagako Opera Denboraldiak, Madrilgo Errege Antzokia, Lyongo Auditoriuma, Tolosako Halle aux grains...

Errepertorio zabala jorratzen du bai erreztaldietan, bai kontzertu sinfonikoetan eta oratorioetan. Gonbidatutako bakarlari gisa aritzen da antzinako musika lantzen duten hainbat talderekin.

Diskoak ere grabatu ditu zenbait disko-etxerekin.

"Ainhoa Zubillaga conquistó con su sensibilidad... el silencio más absoluto se hizo cómplice de ella para dejar que la música pura invadiera el Musikverein".

Se ha presentado en Festivales, ciclos, salas y auditorios de Austria, Brasil, Cuba, España, Francia, Gran Bretaña, Holanda, México, Polonia, República Checa... (Musikverein, Halle aux Grains, Teatro Real, Auditorio Nacional, Teatro Monumental, Quincena Musical, Festival Mozart de La Coruña, Festival de Nantes, Semana Música Religiosa de Cuenca...) ante prestigiosas orquestas (Nacional de Rusia, Nacional de Letonia, Nacional de Lyon, Capitolio de Toulouse, Sinfónica de Viena, Sinfónica de Galicia, Sinfónica de Baleares, Sinfónica de Bilbao, Sinfónica de Euskadi, Sinfónica del Principado de Asturias, Real Philharmonia de Galicia, RTVE...) compartiendo escenario con grandes artistas como Alvarez, Arteta, Bros, Burchuladze, Gavanelli, Gustafson, Hendrick, Jaho, Kunde, Machado, Millgramm, Montagüe, Moreno, Mosuc, Neves, Nuci, O'Neill, Pieczonka, Prokina, Rucinski, Rydl, Streit, Zajick... y dirigida por maestros como Ceccato, Gomez Martinez, Griffiths, Kout, López Cobos, Mena, Victor Pablo Pérez, Pletnev, Pons, Ros Marbá, So, Traub, Wilson...

En el campo operístico, ha intervenido en producciones de A.B.A.O, Quincena Musical, Temporada de Ópera de Las Palmas, Málaga, Teatro Real de Madrid, Auditorio de Lyon, Halle aux grains de Toulouse...

Aborda un extenso repertorio tanto en recitales como en conciertos sinfónicos y de oratorio. Colabora como solista invitada con diversos grupos de música antigua.

Ha grabado varios discos para diferentes sellos.



KONTZERTUA:

AZPEITiko

Loiolako Basilikan

urriak 8, 20:00etan

AZPEITIKO
JUAN DE ANTXIETA
eta
BERGARAKO
MUSIKA ESKOLETAKO
ORGANO IKASLEAK



EGITARAUA:

ORGANOAN: **Itxaso Alberdi**

Kontzertua *H. Moll*

Organorako moldaketa: J. Got Walther

Adagio Giozzoto *Albinoni*

ORGANOAN: **Anaitz Lizartza**

Toccata-Adagio

Fuga C Nagusian

BWV 564

ORGANOAN: **Elena Laka**

Les bergers *O. Messiaen*

ORGANOAN: **Leo Joaristi**

Lehen korala *C. Franck*

ORGANOAN: **Elena Laka eta Leo Joaristi**

Sonate four hands *D. Cameron*

KONTZERTUA:

AZPEITiko

Loiolako Basilikan

urriak 15, 20:00etan

EGITARAUA:

Pièce Héroïque *César Franck (1822-1890)*

Fileuse et Sicilienne (extraits de Pelléas et Mélisande) *Gabriel Fauré (1845-1924)*

(Transcription de Louis Robilliard)

Scherzando de concert *Gabriel Pierné (1863-1937)*

(Extrait de Trois Pièces pour orgue)

Claire de Lune *Louis Vierne (1870-1937)*

(Extrait de 24 Pièces de Fantaisie)

Allegro *Charles-Marie Widor (1844-1937)*

(Extrait de la 6ème Symphonie)

Improvisation *Karol Mossakowski (1990)*

Organista: **KAROL MOSSAKOWSKI**



Karol Mossakowski

organista

Karol Mossakowskik aitopen handia du nazioartean, interpretatzeko zein inprobisatzeko duen gaitasunagatik. Lehen saria irabazi zuen "International Prague Spring Competition" eta iGrand Prix de Chartres'i lehiaketetan eta aipatutako bi esparruetan ibilbidea egiten ari da nazioartean. Radio France irratiako organo-jotzaile egoiliarra izan da Karol 2019az geroztik eta jendearen berotasuna irabazi du karisma aparta baitu.

Berriki eskaini dituen eta etorkizunean eskainiko dituen emanaldien artean aipatzekoak dira areto hauetako kontzertuak: Radio France, Lyongo auditoriuma, Moskuko Orkestra Filarmonikoa, San Petersburgoko Mariinsky antzokia, Bruselako BOZAR, Quebecoko Palais Montcalm, Budapesteko M+PA eta Wroclawko National Forum.

Karolentzat funtsezkoa da musika biziaren alde egitea inprobisazioari esker; hain zuzen ere, garrantzi handia eskaintzen dio horri bere errezitaldietan eta film mutuei akonpainamendua eginez garatzen du. 2017an DVD bat argitaratu zuen Dreyerren Jeanne d'Arc-i buruz Gaumont-PathÉ konpainiarentzat. 2014-2015ean Artista Gazte Egoiliarra izendatu zuten San Luis, Frantziako erregea, katedralean (New Orleans-AEB). Errezitaldi ugari egin zituen han eta interpretazioko eta inprobisazioko eskolak eskaini zituen. Hiru urte zituela hasi zen Karol Mossakowski pianoa eta organoa jotzen bere aitarekin. Musika-ikasketak Polonian egin ostean, Pariseko Kontserbatorioari (CNSMDP) organo-, inprobisazio- eta konposizio-klaseetan hasi zen. Lilleko katedraleko organo-jotzaile titularra da eta inprobisazioko irakaslea Donostiako Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikenen).

Karol Mossakowski es reconocido internacionalmente tanto por su capacidad de interpretación como de improvisación. Ganó el primer premio del "International Prague Spring Competition" así como el "Grand Prix de Chartres" y lidera una carrera internacional en ambos campos. Karol ha sido organista residente de Radio France desde 2019, donde se ha ganado el entusiasmo del público.

Entre sus actuaciones recientes y futuras destacan los conciertos en salas como Radio France, el Auditorio de Lyon, la Filarmónica de Moscú, el Teatro Mariinsky de San Petersburgo, el BOZAR de Bruselas, el Palais Montcalm de Quebec, el MÜPA de Budapest, Wroclaw National Forum, así como con múltiples orquestas.

Para Karol es fundamental apoyar la música viva gracias a la improvisación, a la que da un papel importante en sus recitales y desarrolla acompañando películas mudas. En 2017 lanzó un DVD con sus improvisaciones sobre Jeanne d'Arc de Dreyer para Gaumont-Pathé. En 2014-15 Karol fue nombrado Joven Artista en Residencia en la Catedral de San Luis Rey de Francia en Nueva Orleans (EEUU), donde realizó numerosos recitales e impartió clases de interpretación e improvisación. Karol Mossakowski empezó a tocar el piano y el órgano a los tres años con su padre. Tras sus estudios musicales en Polonia, entró en las clases de órgano, improvisación y composición del Conservatorio de París (CNSMDP). Es organista titular de la Catedral de Lille y profesor de improvisación en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián (Musikene).

KONTZERTUA:

AZPEITIKO

Loiolako Basilikan

urriak 22, 20:00etan

EGITARAUA:

Concerto en ré mineur ** *Alessandro Marcello*

Registro de Pajarillo * *Jorge Montilla*

Concerto en ré mineur ** *Tomaso Albinoni*

Adagio du concerto en la majeur K622 ** *Wolfgang Amadeus Mozart*

Sonate pour clarinette opus 167 ** *Camille Saint-Saens*

I. Allegretto

II. Allegro animato

III. Lento

IV. Molto allegretto

Variations grégoriennes sur un Salve Regina ** *Henri Tomasi*

(*) Klarinetea

(**) Klarinetea + organoa

Organista: **BRICE MONTAGNOUX**

Klarinetea: **EVA VILLEGAS**



Brice Montagnoux organista

Eva Villegas klarinete-jotzaileak eta Brice Montagnoux organistak konplizitate bitxiko bikotea osatzen dute.

Eva Villegasek eta Brice Montagnouxek Frantziako kontzertu-areto, eliza eta katedral ederrenetara eraman dute beren musika, eta maiz aritzen dira atzerrian ere.

2016tik, bikoteak dozenaka kontzertu eman ditu, eta barrokoko musikatik musika garaikidera arte hartzen duen erreperitorio zabala lantzen dute, organorako eta si bemolean, la-n eta mi bemolean afinatutako klarinetetarako zein klarinete baxurako idatzia eta moldatua.

2019an, Eva Villegasek eta Brice Montagnouxek beren lehen diskoa grabatu zuten (*Dialogue sur les jeux d'anches*), Grimaud-eko St Michel elizan, Belgikako Organorox diskoetxerako.

Brice Montagnouxek organo-, idazketa- eta azterketa-ikasketak egin zituen Lyoneko Musikako Goi Kontserbatorio Nazionalan, Louis Robilliard eta Jean Boyer irakasleekin, eta hor, titulu gorenak lortu zituen: Musikako Goi Mailako Ikasketetako Diploma Nazionala (2001), Gaitasun Ziurtagiria eta Pedagogiako Masterra (2004). Touloneko Eskualde Mailako Kontserbatorioan (Proventza-Mediterraneo eskualdea) organo-eskolak eman ondoren, Aix-en-Provenceko Cefedem-Sud zentroko zuzendari izendatu zuten, eta artista eta irakasle gazteen prestakuntzan eta akonpainamenduan jardun zuen, Aix-Marseilleko Unibertsitatearekin eta kultura-eragile ugariarekin lankidetzan arituta. Montagnouxen bultzadari esker, bikaintasun-zentro horrek, 2016ko ministerio-erabaki baten bidez, musikako goi-mailako ikasketa-poloaren izendapena lortu zuen, Montpellierretik Monakoraino hartzen duen lurralde zabalerako. Gaur egun, Brice Montagnoux egitura horren zuzendaritzaz arduratzen da; orain, Musikako Goi Irakaskuntzako Institutua (IESM) — Europa eta Mediterraneoan esaten diote.

La clarinetista Eva Villegas y el organista Brice Montagnoux forman un dúo de una rara complicidad.

Eva Villegas y Brice Montagnoux han hecho sonar su música en las más bellas salas de conciertos, iglesias y catedrales de Francia, a la par que actúan con regularidad en el extranjero.

Desde 2016, el dúo ha ofrecido docenas de conciertos y cuenta con un vasto repertorio que va desde el período barroco a la música contemporánea, escrito y arreglado para órgano y clarinetes en si bemol, la, mi bemol y clarinete bajo.

*En 2019, Eva Villegas y Brice Montagnoux grabaron su primer álbum, *Dialogue sur les jeux d'anches*, en la iglesia St Michel de Grimaud, para el sello belga Organorox.*

Brice Montagnoux cursó sus estudios de órgano, escritura y análisis en el Conservatorio Nacional Superior de Música de Lyon con Louis Robilliard y Jean Boyer, donde obtuvo las más altas distinciones: Diploma Nacional de Estudios Superiores de Música (2001), Certificado de Aptitud y Máster de Pedagogía (2004). Tras haber impartido clases de órgano en el Conservatorio de Ámbito Regional de Toulon (Provenza-Mediterráneo), en 2012 fue nombrado director del Cefedem-Sud en Aix-en-Provence, y se dedicó a la formación y el acompañamiento de jóvenes artistas y enseñantes, en colaboración con la Universidad de Aix-Marseille y numerosos agentes culturales. Bajo su impulso, este establecimiento de excelencia obtuvo el año 2016, por decisión ministerial, la calificación de polo de enseñanza superior de la música para un amplio territorio que se extiende desde Montpellier hasta Mónaco. Brice Montagnoux se encarga hoy en día de la dirección de esa estructura, ahora denominada Instituto de Enseñanza Superior de Música (IESM) — Europa y Mediterráneo.

Eva Villegas klarinetea



Eva Villegas klarinete-jotzaileak Bakarleri Diploma lortu zuen, goraipamen bereziarekin, Genevako Musikako Goi Eskolan, Thomas Friedli irakaslearekin ikasita. Bere prestakuntza Finlandian jarraitu zuen, Sibelius Akademian. Hor, master-titulu bat lortu zuen musika-pedagogian, goraipamen bereziarekin, eta mi bemolean afinatutako klarineteari buruzko bere prestakuntza osatu zuen, Marja Kopakkala eta Benoit Willmann irakasleekin, bai eta klarinete baxuari buruzko prestakuntza ere, Heikki Nikula eta Antoine Marguier irakasleekin.

Eva Villegas ganbera-musikako irakaslea da Touloneko Kontserbatorioan (Proventza-Mediterraneo eskualdea).

Parisko Henri SELMER etxeko Selmer Privilège Evolution gama berriko klarineteak erabiltzen ditu. Klarinete horien ekoizpen-prozesuan zura eta belaunaldi berriko erretxina bat uztartzen dira. Erretxina goiko aldetik txertatzen da musika-tresnaren gorputzean. Material berri horren ezaugarriei esker, musika-tresnaren egonkortasuna eta iraunkortasuna hobetzen dira, zurezko klarinete baten ezaugarri akustikoak galdu gabe.

La clarinetista Eva Villegas tiene un Diploma de Solista con mención especial conseguido en la Escuela Superior de Música de Ginebra, en la clase de Thomas Friedli. Prosiguió su formación en Finlandia, en la Academia Sibelius, donde obtuvo un máster en pedagogía musical con mención especial, y completó su formación en clarinete en mi bemol con Marja Kopakkala y Benoit Willmann, y en clarinete bajo con Heikki Nikula y Antoine Marguier.

Eva Villegas es profesora de música de cámara en el Conservatorio de Toulon en la región de Provenza-Mediterráneo.

Utiliza la nueva gama de clarinetes Selmer Privilège Evolution de Henri SELMER, París: en su proceso de fabricación asocian a la madera una resina de nueva generación que se inserta en el cuerpo del instrumento desde lo alto. Las características de este nuevo material aportan una mejor estabilidad y mayor longevidad al instrumento, a la vez que se preservan las cualidades acústicas de un clarinete de madera.



ESKERTZA ONDOKO PARROKIEI:

- Azkoitiko Amabirjinaren Jasokundea
- Bergarako Santa Marina
- Loiolako Basilika (Azpeitia)

